

- **HARREMANAK**

Gure enpresak erosleekin izango dituen harremanez asko arduratuko gara; toloak erostera datorren jendea. Bezeroak modu egokian tratatzen eta haien arazoak lehenbailehen konpontzen saiatuko gara, harreman egokia edota ona izatea funtsezkoa deritzogulako.

Gure zerbitzua pertsonala eta automatizatua izango da, telefono bitartez deiak jasoko ditugulako eta sortutako webgunearen bitartez ere lanean ariko garelako. Webgunetik egindako eskaerez, galdera edo iradokizunez Maddi arduratuko da. Telefonoz kontsultak edo bestelakoak argitzeko lanetan June arituko da. Eta lantegian Josu egongo da, toloak kamioira sartzen.

Bestalde, webgunearen laguntzaz gure produktua erosteko aukera egongo da, enpresan bertan erostea nahi ez bada.



